



37 IKASTETXEK ETA 21 ENPRESA ZEIN ERAGILE SOZIOEKONOMIKOK, HEZKUNTZA SAILAREN STEAMSARE PROGRAMAREKIN BAT EGIN DUTE

- Ikastetxeek eta enpresa zein eragileek bokazio zientifiko eta teknologikoak piztera bideraturiko ekintzak burutuko dituzte urtean zehar
- **STEAMsare** programa Hezkuntza Sailaren STEAM Euskadi Estrategiaren baitan garatzen da; zientzia eta teknologiaren irakaskuntza motibatzaileago eta praktikoago baten aldeko apustua egiten du

Abian da *STEAMsare* programa, Euskadin eskola, enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoen sare bat sortzeko helburuarekin, STEAM hezkuntza bultzatuko duen programa (Science, Technology, Engineering, Arts eta Mathematics hitzen ingelesezko akronimoa). Berrogeita hamar bat ikastetxe eta eragile sozioekonomikok bat egin dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutako programarekin.

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, Maite Alonso Hezkuntza sailburuordeak eta Adolfo Morais Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak aurkeztu dute gaur goizean *STEAMsare* programa prentsaurrekoan. Hauekin batera, Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziako zuzendari nagusi Leire Bilbao ere aurkezpenean izan da, eragile honekin garatzen baita proiektu hau, STEAM Euskadi Estrategiako beste zenbait proiektu bezalaxe.

Jet-Net programan inspiratuta dago, Holandan garatutako eta Danimarkara eta beste herrialde batzuetara hedatutako hezkuntza-programa arrakastatsu batean. *STEAMsare*ren helburu nagusiak dira, ikasleei zientzia- eta teknologia-arloko ikasgaien eta lanbideen irudi errealista, positiboa eta askotarikoa eskaintzea, eta aldi beran arlo horretan bokazioak sustatzea. Eskolek, enpresek eta eragile zientifiko-teknologikoei elkarrekin lan egingo dute urtean zehar, parte hartzen duten 5 eragile dinamizatzaileetako batek lagunduta. Honako hauek dira eragileak: Berrikuntzaren Euskal Agentzia – Innobasque, Azaro Fundazioa, Makina-erremintaren Institutua, Iraurgi Berritzen eta Mondragon Korporazioa.

Hezkuntza-curriculumak aberasteko hainbat jarduera garatuko dira, era horretan irakasleei laguntza emanez aipatutako ikasgaiari benetako testuingurua ematen. Gainera, enplegu horien lan-errealitatea, profil profesionalen aniztasuna eta euskal industria-ehunaren aberastasuna erakutsiko dira, enpresetara egindako bisiten, erronka teknologikoei buruzko tailerren edo espezialistekin egindako bileren bidez.

Gainera, era osagarrian, espezialistak eta hezitzaileak garatzen ari diren jardueren katalogo bat prestatu da, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzaz erraztuko da, eta emaitzak ebaluatuko dira eragile dinamizatzaileen sareari esker.

STEAMsaren hiru lurralde historikoetako arlo industrialeko 21 enpresak eta eragile zientifiko-teknologikok hartuko dute parte, sare publikoko zein itunpeko 37 ikastetxerekin batera. Parte hartuko duten konpainiak, honako hauek dira: Aernnova Aerospace, Alcorta, AVS, Burdinola, CIC



Energi GUNE, Cikautxo, DOMUSATEKNIK, Egile, Eika, Ekintza Lantegia, Fagor Arrasate, Danobat Taldea, Fagor Taldea, Ulma Taldea, Ideko, Kide, Leartiker, Maier, Mecanizados Gurrutxaga, Pixel Sistemas eta Sidenor. Teknologia altuko euskal industria-sektoreetako enpresak dira, hala nola aeronautika, manufaktura aurreratua edo siderurgia.

Gainera, *STEAMsarek*, Holandako *Jet-Net* programarekiko desberdintasun gisa, 4Gune Klusterra ere bere baitan hartu du; hau da, ingeniari, zientzia eta teknologiko unibertsitate-prestakuntzarako Klusterra, programaren etorkizuneko garapenean eta dinamizazioan Euskadiko unibertsitateek ere zerasana izan dezaten.

STEAMsare programaren onurak

Programa honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zientziaren eta teknologiaren irakaskuntza motibatzaileago eta praktikoago baten alde egiten du, benetako lan-testuinguruetan garatuko dena. Horrela, ikasleen gaitasun zientifikoak eta teknologikoak hobetzen lagundu nahi du Sailak, eta eremu horretako bokazioak piztu, tokiko talentuaren garapena sustatuz.

STEAM Hezkuntza bultzatzea lehentasun bihurtu da Hezkuntza Sailarentzat; izan ere, STEAM Euskadi Estrategiaren eta EAEko 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuetatik eratorria baita programa hau. Zehatzago, ezagutzaren esparru guztietan (zientzia eta teknologia, gizarte zientziak, humanitateak eta arteak) prestakuntza-bokazioak lankidetzan sustatzeko helburuari loturik. Era horretan, talentua orientatzeko eta prestatzeko prozesuak lehentasunezko lan-ildo gisa indartzen dira, adin goiztiarretan hasita.

STEAMsare erabat lotuta dago, gainera, Euskadik –Hezkuntza Sailaren eta Innobasqueren bidez- *Erasmus+ EuroSTEAM* proiektuan duen parte hartzearekin. Proiektu horren helburua da Europan STEAM estrategiak definitzea eta abian jartzea oraindik halakorik ez duten eskualde eta herrialdeetan, Europak STEAM Estrategia europarra bat izan dezan.

STEAM Euskadi Sari berriak

Ildo horretan, Hezkuntza Sailak STEAM Euskadi Sariak deituko dituzte laster, Euskadin garatzen ari diren mota horretako ekimenei aitormena egiteko asmoz. Sariak 2020ko martxoan banatuko dira, eta 5.000 euroko bi kategoria izango dituzte: STEAM Hezkuntza Ekimen berritzaileena eta Genero-ikuspegidun STEAM Hezkuntza Ekimena. Atal honetan, Innobasquerekin lankidetzan aritzeak, euskal gizartean berrikuntza sustatzeko eragile nagusia den aldetik, ahalbidetuko du, besteak beste, lortutako emaitzen balorazioan, gizartean duten eraginean eta aurkeztutako proiektuen berrikuntza-mailan sakontzea.

Bilbon, 2019ko azaroaren 13an



STEAMsare programan parte hartuko duten ikastetxe eta dinamizatzailleak:

Dinamizatzaillea	Ikastetxea	Udalerrria
IMH	Elgoibarko ikastola	Elgoibar
IMH	IES Elgoibar BHI	Elgoibar
IMH	IES Mutriku BHI	Mutriku
Azaro Fundazioa	Lea-Artibai ikastetxea	Markina-Xemein
Azaro Fundazioa	Bera Kruz Ikastola	Markina-Xemein
Azaro Fundazioa	IES Ondarroa BHI	Ondarroa
Azaro Fundazioa	Zubi-Zahar Ikastola	Ondarroa
Azaro Fundazioa	Azkue Ikastola	Lekeitio
Azaro Fundazioa	IES Lekeitio BHI	Lekeitio
Azaro Fundazioa	IES Markina BHI	Markina-Xemein
Azaro Fundazioa	IES Barrutialde BHI	Arratzu
Azaro Fundazioa	IES Gernika BHI	Gernika
Azaro Fundazioa	San Fidel Ikastola	Gernika
Azaro Fundazioa	Seber Altube Ikastola	Gernika-Lumo
Azaro Fundazioa	Sta. Maria del Socorro / Mertzede Ikastetxea	Gernika
Azaro Fundazioa	Elizalde Ikastola	Bermeo
Azaro Fundazioa	Sagrado Corazón Ikastetxea	Bermeo
Azaro Fundazioa	Lauaxeta Ikastola	Amorebieta
Iraurgi Berritzen	Floreaga Salestar Ikastetxea	Azkoitia
Iraurgi Berritzen	Iraurgi Ikastetxea	Azpeitia
Iraurgi Berritzen	IES Azkoitia BHI	Azkoitia
Iraurgi Berritzen	Urola Azkoitia BHI	Azpeitia
Iraurgi Berritzen	Ikasberri ikastola	Azpeitia
MONDRAGON	Txantxiku Ikastola	Oñati
MONDRAGON	IES Soraluze BHI	Soraluze
Innobasque	Gaztelueta Ikastetxea	Leioa
Innobasque	Lauro Ikastola	Loiu
Innobasque	IES Botikazar BHI	Bilbao
Innobasque	IES Koldo Mitxelena BHI	Gasteiz
Innobasque	IES Samaniego BHI	Gasteiz
Innobasque	IES Unamuno BHI	Bilbao
Innobasque	Colegio Vizcaya	Zamudio
Innobasque	Begoñazpi Ikastola	Bilbao
Innobasque	San Felix Ikastetxea	Ortuella
Innobasque	Artxandape Ikastola	Bilbao
Innobasque	Carmelitas Sagrado Corazón	Gasteiz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Innobasque

Urkide Ikastetxea

Gasteiz

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 018286 - Fax 945 01 8198 – E-mail: hezkuntzaprentsa@euskadi.eus

Euskadi, auzolana, bien común